

PROGRAMA

**Tafallan
zeuk
erabakitzen
duzu historia**

Ahal Dugu TAFALLA
PODEMOS.

**TAFALLAN ZEUK
ERABAKITZEN DUZU HISTORIA**

Heldu da garaia sortu ginenean geure gain hartu genuen zer-egin nagusiarri heltzeko. Udal-hauteskundeetara aurkeztea da Podemos Tafallak duen lehentasun bat, Udal Gobernura heltzeko bitartekoa baita, eta hori da gauzak aldatzeko tresna.

Podemos ahalegin pertsonal eta ilusio handiaz eraiki da, baina ez dira falta izan nahigabeak eta une gaziak, gure foru lurraldean zein estatuan. Horregatik, autokritika egin dugu (beharrezkoa zen eta aberasgarria izan da), eta bihotz eman digu aurrera egiten jarraitzeko.

Tafallan, primarioen prozesu bat ireki zen eta, horietara, Carlos Alonso Fernándezek erabaki zuen aurkeztea, pertsona-talde bat lagun hartuta.

Gure ustez, 2015ean Nafarroara eta Tafallara heldu zen aldaketa politikoak ziklo bati eman zion hasiera, Podemosek sortzean emandako bultzada politiko eta sozialik gabe ezinezkoa izango zena. Ez da aldaketa ulertzen Podemos existitu gabe, herriko politikan presentzia asko izan ez dugun arren. Orain, ordea, heldu da garaia gauzak geure eskuetan hartzeko, eta sumina jendearen bizitza aldatuko duten neurri baliagarrietara bideratzeko.

Gaur arte egindako lanari muzin egin gabe, bide luzea dago oraindik egiteko. Programa sozialagoa, bidezkoagoa eta parekideagoa egitea proposatzen dugu.

Horretarako, programa politiko eraldatzailea izan behar dugu, gizarte-eragileen eta, oro har, herritarren partaidetza duena.

Ezin dugu onartu atzerabiderik askatasun zibiletan eta emakumeen eskubideetan, lau fatxen taldeak proposatzen duen bezala, izen berriekin baina politika zaharrak aldean dakartzana. Horregatik, eskubideak segurtatu eta etorkizunari begiratu nahi diogu, ez baikara konformatzen «dagoenarekin». Herri-egitasmo ausarta dugu, bizia erdian jartzen duena.

Bukatzeko, jakina den arren, gustuko dugu gogora ekartzea eskuak libre ditugula gauzak aldatzeko, guk ez baitiegu krediturik eskatu bankuei, eta ez ditugu kargu publiko izandakoak IBEX 35eko administrazio-kontseiluetan eserita, ezta Nafarroako Gobernuako enpresa publikoetan ere.

Tafallarako ilusioz betetako herri-egitasmo bat dugu.

Gure herritarrek giza eskubideak osoki erabiltzea bermatzen duen Tafalla nahi dugu.

Tafalla demokratikoa nahi dugu, gardena eta parte-hartzailea, herritarrak ahalduntzen dituena.

Bere herritarren ondasun komuna den Tafalla nahi dugu, giza eskubideak lehenesten dituena, eta ez privatizazio-prozesuak, eta herriko erdialde historiko hondatua berroneratuko duena.

Tafalla jasangarria nahi dugu, inguratzen gaituen landa-ingurunearekin eta natura-baliabideekin harreman orekatsuan eta errespetuz bizi dena.

Bere biztanleen ongizatearen aldeko ekonomia duen Tafalla nahi dugu, herriaren garapen jasangarrian oinarritua, herriko baliabideez elikatua.

Tafalla horretan, bertan bizi diren pertsona guztienak dira espazio publikoak, eta aitortu egiten dira adierazpen-askatasunerako espazio horien premia dugula.

Tafalla horretan, kultura-eskubideak eta gizarte-inklusioa bermatuko da.

Indizea

HORIZONTE BERDEA	7
HORIZONTE MOREA	12
ESKUBIDE SOZIALEN DEFENTSA.	17
UDAL-ADMINISTRAZIOA	22

HORIZONTE BERDEA

Gazteek esan dute kalean: ez dugu B planetarik, ez dugu ordezko planetarik.

Klima-aldaketa ukatzen dutenek pribilegiatuen ekonomia-interesak babestu besterik ez dituzte egiten, baina Podemos Tafallan ondo dakigu, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak (IPCCk) bezala, “argi dago[ela] gizakiak klima-sisteman eragina duela, eta gizakiak sortutako berotegi-efektuko gasen azken aldiko isurketa historiako handienak dira. Klima-aldaketa berriek inpaktu orokorrak izan dituzte giza eta natur sistemetan”. Horregatik, hainbat neurri proposatzen ditugu horren hondatzailea eta kontsumista ez den eredu baten alde:

1. Herriko alde zaharra birgaitzeko plan bati ekitea helburu lehenetsia dugu, hondatuta dauden udal-eraikinetan etxebizitza berriak lagatzeko edo/eta alokairu sozialerako egokitzeko.
2. Energia-operadore berde baten sorreraren aukera aztertzea. Era horretan, etxeetako energia-faktura merkatzen joango gara pixkanaka, energia-pobreziari aurre egin ahal izango diogu, eta energia-ekoizle handiekiko mendekotasuna murriztu. Hala, ondorengoa proposatzen dugu:
 1. Udal-eraikin guztietan, eguzki-plakak instalatzea.
 2. Eguzki-energiaren autokontsumoa (hala ur berorako nola elektrizitaterako) eta herriko ekoizle txikiei energia berriztagarrien erosketa publikoa ekimenez sustatzea.
 3. Jatorri berriztagarriko elektrizitatea, udal-ekoizpene-koa zein hirugarrenek ekoizitakoa, merkaturatzeko enpresa bat sortzea, administrazioan eta, aukeran, soberakina dagoenean, hirurrenek hura erabiltzeko.
3. Ingurumen-jasangarritasunerako eskola bat sortzea proposatzen dugu, bertan sartuz:
 1. Natura, agroekologia, mugikortasun jasangarria, birziklapena, energia-aurrezpen eta abarrei buruzko heziketa.
 2. Kultura partekatuko tailerren sustapena.
4. Eraikuntzan efizientzia hobetzearen aldeko apustua egiten dugu, baita zero kontsumoko edo energia sortzen duten eraikinen alde ere. Laguntzen bidez, etxebizitzan birgaitzea, bero-isolamendua, irisgarritasuna, eta mugit-

- kortasun murrizteko eta mendekotasun maila handiko pertsonentzako egokitzapena sustatuko dugu.
5. Energia-efizientzia sustatzeko eta argi-faktura murrizteko etxebizitzak birgaitzen laguntzea.
 6. Etorkizun-aukera zabalak dituen ingurumen-, gizarte- eta kultura-arloko eredu jasangarriari lotzen zaion turismoa, betiere tokiko errealitatearekin arduratua, sustatzea. Gure ustez, turismo-kalitatearen zigilua bultzatu behar dugu langileen eskubideak errespetatzen eta ingurunea zaintzen dutenentzat.
 7. Hurbileko merkataritzaren eta tokiko ekoizpenari lotutako merkaturatze-sare berrien alde apustu egitea, horiek kontsumo-era jasangarri berriei lotzen baitzaizkie.
 8. Aire-kalitatea hobetzeko neurri estrukturalak ezartzea. Aire-kalitateko datuei buruzko eguneroko informazio publikoa.
 9. Instalazio publikoetan amiantoa detektatu eta kentzeko plana sortzea.
 10. Animaliak babestu eta ongizatea babesteko hezkuntza-programak bultzatuko ditugu. Kaleko katuentzat CES delako metodoa ezartzea (Kontrola, Esterilizazioa eta Askatzea).
 11. Burdinbidea modernizatzearen alde apustu egiten dugu, tren publiko eta sozial baten eredian oinarritua. Tren sozialak Nafarroako eskualdeak elkarrekin lotzea nahi dugu, lurraldearen barne-artikulazioa susta dezan, Abiadura Handiko Tren egitasmoari kontrajarria; izan ere, enpresa pribatuen onerako gain-kostuz jositako inbertsioa da.

12. Eskualde arteko eta Tafallarekiko garraioa hobetzea, landa-inguruneko biztanleek zerbitzu publikoak erabili ahal izateko edo, kontrako aldean, zerbitzu mugikorren bidez, landa-inguruneetan bizi diren pertsonen beharrianak errazteko eta, hartara, lurralde-integrazioa sustatzeko.
13. Ibilgailu elektrikoak, bizikletak eta garraio kolektiboko soluzio publikoak erabiltzea bultzatuko dugu. Mugikortasun publikoko zerbitzuen maiztasuna eta ibilbideak hobetuko ditugu, eta neurriak ezarriko ditugu askotariko zerbitzuen prezioa pertsona erabiltzaileen errenta mailara egokitze-ko.
14. Kontsumo elektriko berriztagarri eta mugikortasun autonomoko ibilgailu ereduak sustatzea. Mugikortasun Efizienterako Plana, isurketekin zorrotza izango dena. Bir-karga elektrikorako puntu gehiagoren sustapena.
15. Alde zaharreko ingurune batzuk osoki edo zati batean oinezkoentzako bide bihurtzea.
16. Kontratu Publikoen Legeak erosketa publiko arduratsurako, kontratuen lotekako lizitaziorako edo erosketa eta kontsumo berderako edo ekologikoa edo denboraldikoa den kontsumorako eskaintzen dituen klausulak aplikatzea.
17. Tokiko ekoizpen-arloak babestea.
18. Aurrean dugun klima-aldaketa testuinguruarekin bat datorren nekazaritzako elikagaien ekoizpen-, eraldaketa- eta banaketa-sistema sustatzea, tokiko ekoizpena, zuzeneko salmenta, eta hurbileko kontsumoa bultzatuz eta, aldi berean, lurraldeko elikadura-burujabetza sendotuz.
19. Zuhaitzen eta eremu berdeen inbentarioa eguneratuta eduki eta ureztapen efizienteagorako plan bat aztertzea.

20. | Eremu berdeak gehiago zaindu eta kaleetan lore-askak sartzea.
21. | Puntu estrategikoetan edo periferiako ingurumarian kokatutako aparkalekuak, erdialdera doan gehiegizko trafikorik ez egoteko.
22. | Uneko aparkaleku publikoekin dauden trafiko-komunikazioak aztertzea.
23. | Aire-kutsaduraren kontrako neurri pasiboak ezarri, adibidez, deskutsatzen duten zoladurak.
24. | Pestizidak eta ongarri ez-organikoak estu kontrolatu, eta lorategietan eta udal-lursailetan sintesiko kimikoak kentzea.
25. | Txakurren aisialdirako inguruneak sortzea.
26. | Festetara bideratzen diren gastuak hobe banatzeari buruzko herritarrei kontsulta egitea.
27. | Herrian interbentzio handiak egiteari buruz herritarrek parte hartzen duten planak (trafiko-aldaketak, zerbitzu jakin batzuen kokapena, komunikaziorako garrantzia duten ardatzak oinezkoen bide bihurtzea, etab.).
28. | Ur-iragazkiak jartzea sustatzea, harguneko uraren kalitatea eta pertsonen osasuna hobetzeko eta etxetresna elektrikoen eta instalazioen iraunaldia luzatzeko.

HORIZONTE MOREA

Podemosek irmo heldu dio Konstituzio argi eta garbi feminista baten alde lan egiteari; bertan, zainketa-lanak oinarritzko eskubideak direla definituko da. Uste dugu bitzita jarri behar dugula politika guztien erdi-erdian.

29. | Geure egiten dugu Nafarroako Berdintasun Tekniken dokumentua berdintasun-politikak garatzeko inspirazio-iturritzat.
30. | Berdintasunaren alde Tokiko Erakundeen Sarea bultzatzen jarraitzea.
31. | Udal-aurrekontuko % 1,4 gutxienez berdintasuna sustatzera joango dela bermatzea.
32. | Erabakiak hartzen dituzten politikarien berdintasun-gailetako heziketa berezia jarraitu eta zabaltzea.
33. | Emakumeen kontrako indarkeriaren eta LGTBI+fobiaren kontra borrokatzea.
34. | Erakunde Publikoen Itun bat bultzatu eta onartzea, zainketei balioa ematen dien etika berri batean oinarritzen den ekintza politikoa eraiki eta garatzeko.
35. | Udalaren ekintzetan genero-ikuspegia sartzen jarraitzea.
36. | Emakumezkoen elkarteak sustatzen jarraitzea.
37. | Emakumeak ahalduentzako ezartzen diren neurriak babestu eta bultzatzea.
38. | Zorionez, langabezia beherantz doa, baina desberdin gizonentzat eta emakumeentzat. Beharrezkoa da datu hori aztertzea eta emakumeentzako enplegagarritasun-neurriak hartzea.
39. | Udalak jendaurrerako argitaratzen dituen testu guztiek hizkera erraza izan behar dute, ohiko erabilera duten hit-

- zak baliatuz, eta hizkera sexista ez erabiltzeari arreta berezia jarritz.
- 40.** | Pertsona zaharrekin jendarteratzen diren herritarrak, adibidez, dendariak, haien jarraipen bat egiteko inplikaraztea; era horretan, gizarte-zerbitzuen eta auzotarren arteko koordinazio bat sortuko da.
- 41.** | Edozein laguntza edo diru-laguntzaren baremoetan, langileen artean genero-oreka betetzen duten enpresak hauspotuko ditugu, hala multzoan hartuta nola haien askotariko talde profesionaletan.
- 42.** | Era guztietako indarkerien eta genero-desparekotasunen prebentziorako programak eta ekintzak sustatzea, bereziki gizonei zuzenduta.
- 43.** | Emakumeen salerosketaren kontra borrokatzea eta hura pertsegitzeko ekintza-plan bat.
- 44.** | Kontratazio publikoan klausula sozialak erabiliko ditugu dibertsitate funtzionala duten pertsonen enplegua, enpresetan berdintasuna eta abar sustatzeko... Gainera, kontziliazioa babesten duten eta kontziliazio-neurri horiek egiaztatzen dituzten enpresen gizarte-aitortza sustatuko dugu.
- 45.** | Herriko erakunde publikoetan indarkeria matxisten eta LGBTIfobiaren kontrako nahitaezko protokoloak sartuko ditugu.
- 46.** | Lanean jarraituko dugu 0-3 urteko haur-hezkuntza tartearen hezkuntza-etapatzat, hezkuntza-sisteman guztiz sartuz onartua izan dadin eta, beraz, baita doakoa ere.

47. | Haur-hezkuntzaren estaldura unibertsala eta doakoa bermatzea. Ume guztientzako estaldura unibertsala eta doakoa eskaintzen duen haur-hezkuntza sistema (0-3 urte artekoa) eratuko dugu, gurasoen baimen ordainduak amaitzen direnerako. Era horretan, zuzeneko lanpostuak sortuko ditugu; gainera, kotizazioetan eta kontsumoetan, horiek itzulkin ederrak emango dituzte. Lanpostuetatik hurbil edo barnealdean haur-eskolak ezartzea sustatuko dugu. “Auzo-etxeak” sustatuko ditugu, etxeko zainketen kooperatibak, formula alternatibo gisa.
48. | Lan-antolamendu, denboraren erabilera eta erantzukidetasun formula berriei buruzko informazio-, heziketa- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatuko ditugu. Zaintzen duten pertsonentzako familia-atsedeneko planak, eta aisialdiko zein denbora libreko doako ekimenak ezarriko ditugu.
49. | Bizikidetza eta kulturartekotasuna hobetzeko programak sustatzea, emakumeen eta neskatilen beharriaz errepikatuz.
50. | Guraso bakarreko familientzako ekintza-planak; izan ere, pobrezia- zein langabezia-egoerak eta kontziliazio maila eskasak sobera nabarmentzen dira guraso bakarreko etxeetan.
51. | Derrigorrezko hezkuntzaren doakotasun erreala eta eraginkorra bermatzearen, ahuldade sozioekonomikoan dauden familientzako jantoki-zerbitzua bermatzea, etapa guztietan.
52. | Pertsonak garapen urbanistikoaren erdigunean jarri nahi ditugu. Tafallak ez du udal-plan orokor eguneraturik. Herriaren etorkizuna onduko duen lana da hori, pertsonak

kontuan hartu behar dituen, haiek erdigunean jarriz. Urbanismo horrek gure egitasmoa gidatzen duten bi horizonteak hartuko ditu kontuan: berdea eta morea. Beraz, espazio gehiago eskainiko dugu oinezkoentzat eta zerbitzuak (haurren parke estaliak, iturriak, zaborrontziak, eserlekuak eta abar) dituzten topalekuetarako.

ESKUBIDE SOZIALEN DEFENTSA

- 53.** | Etxebizitza publiko eta sozialen kopurua gehitzea, baita larrialdi-egoeretarako gordetakoak ere (adin gutxikoak, indarkeria, mendekotasunera eroriak...) . Modu oneko prezioan dagoen alokairu publikoko parke bat sortzea.
- 54.** | Alokairuan erabili ahal izateko udal-etxebizitza hutsen inbentarioa.
- 55.** | Udal-orubeen inbentarioa. Orube horiek lehenetsita salmentarako ez bideratzea, beste beharrian batzuk bete baititzakete (zuzkidurak, etxebizitza publikoak, etab.).
- 56.** | Beste bizileku-aukerarik ez dutenen etxegabetzeak debekatzea. Inolaz ere ezingo da pertsonarik edo familiarik etxegabetu ahuldade-egoeran badaude eta Administra-zio eskumendunak haiek baldintza duinetan aterpetzea bermatzen ez badu, dela alokairurik ordaindu ez den kasuetan, dela ordain daitekeen etxebizitzarik ez edukitzean prekarietatez okupazio bat egin denean.
- 57.** | Etxebizitza-kooperatibak bultzatuko ditugu haien erabile-ra lagatzeko, etorkizunerako beste etxebizitza-eredu bat delakoan. Etxabeak eta lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko erabilerak aldatzeko aukera aztertuko dugu.
- 58.** | Erakunde publikoak jendearentzat direla aldarrikatzen jarraitzen dugu, gardentasuna eta etika bermatzeko, demokrazia benetan parte-hartzailearen aldeko apustua eginez; izan ere, tokiko erakunde publikoak dira zuzenen parte hartu eta eragin dezakegun lekua.
- 59.** | Herritarren parte-hartzea sustatzera bideratutako heziketa proposatzen dugu.
- 60.** | Parte-hartze mekanismoei buruzko informazio eta zabalpenderako protokolo argiak ezartzea, irisgarritasuna eta sinpletasuna kontuan hartuz.

61. | Etxejabe handientzako Etxebizitza Hutsaren Zerga arautzen duen ordenantza bat ezartzea.
62. | Bide publikoan dauden finantza-erakundeen kutxazaintarako zerga bat sortzeko aukera aztertzea.
63. | Udal-kontratazioa gizarte- eta ingurumen-justizia irizpideei estuago lotzeko baldintzatzea. Kontratuen Lege berriak kontratazioan irizpide sozialak sartzeko modua eman du eta, gure ustez, irizpide horiek zabaldu ditzakegu, eta zabaldu behar ditugu.
64. | Elizak bidegabe matrikulatutako ondasunak berreskuratuzera bideratutako ekintzak hasia.
65. | Oroimen-eskubiderako politikak, berriz ez gertatzeko bermeak sortuko dituztenak: sinbolo frankistak osorik ezabatzea, eta laguntzak bideratzea, baldin eta partikularren jabetzei eragiten badie. Gehienez ere bi urteko epean «oroimen-lekuak» izendatzea proposatzea, lehentasuna emanaz herri-antolamenduko (urbanoetako) plan orokorren eta askotariko araudi urbanistikoen eraginpean gera daitezkeenei.
66. | Berradiskidetzea, bakea eta bizikidetzea helburutzat dituzten ekintza eta ekitaldietan, iritzi desberdin eta kultura-, erlijio- eta ideologia-unibertso desberdinetako pertsonen eta taldeen arteko topaketa eta gogoeta, azterketa eta lankidetzea-esperientzia sustatzea.
67. | Nahi gabeko bakardadearen arazoari aurre egitea, bereziki, pertsona zaharrenari, horretarako sentikortasuna eta arazoaren ezagutza landuz, baina baita hurbileko eta ondo zuzkitutako gizarte-zerbitzuak sustatuz ere, gero eta handiagoa den beharizan horri arreta jartzeko, hura prebenitzeko edo haren ondorioak arintzeko. Programak bultzatuko ditugu, haien bidez bakarrik dauden pertsona

- zaharren laguntza-zereginetan gazteek parte har dezaten errazteko.
- 68.** | Hizkuntza Eskolaren mendeko ikastetxe elkartua.
- 69.** | Euskara normaltzeko lanean jarraitzea, bizikidetzeta eta inklusiorako faktore gisa.
- 70.** | Joko- eta apustu-aretoei mugak jartzea. Horiek ikaste-txeetatik hurbil egotea eragotziko dugu, amuen erabilera murriztuko dugu (adibidez, ongietorri-abonuak edo ohikoa baino janari eta edari merkeagoak), eta apustuatarako denbora-muga bat ezarriko dugu, baita eguneroko zein hileko gastuatarako mugak ere. Halaber, negozio horien gaineko zergak handituko ditugu, prebentzioko inbertsioa eta eragiten duten gizarte-kaltearen tratamendua areagotzeko. Aldi berean, ordutegi horietan gazteentzako zentro sozialak irekiko ditugu, kudeaketa partekatuko gune gisa funtzionatuko dutenak, aisialdi-ekintzak bertan egin ahal izateko; laburbilduz, apustu-etxeak ixteko eta zentro sozialak irekitzeko politika bat izango dugu.
- 71.** | Herritarrentzako irisgarria, dohainik eta eskuragarria diren kultura-guneak sortzea sustatzea, dela zuzenean kudeatuak izateko, dela partekatuta kudeatzeko, dela autokudeaketarako.
- 72.** | Gazteei zuzendutako aisialdi alternatiboaren eskaintza handitzea.
- 73.** | Administrazio Publikoak Arrazionalizatzeko Legea indargabetzea eskatzen dugu, Tokiko Erakundeen inbertitzeko ahalmenari zuzenean eragiten baitio.
- 74.** | Egoiliarrik ez duten etxebizitzan, lursail abandonatuen eta herri-lurren erregistroa prestatzea, landa-inguruneetan

finkatu nahi diren pertsonei askotariko erabilera-eredue-
tako baliabide desberdinak eskaini ahal izateko.

Gure ustez, Tafalla Nafarroa osoko kultura-eredu bat izan behar da, eskualde-buru gisa eta gure Komunitateko Erdialdean duen posizioa sendotuz.

75. | Gure landa-ingurunearen kultura-, arkitektura- eta natura-ondarea balioztatzea; lehentasunak eta ekintza-epeak ezartzen dituen ekintza-plan bat ontzea.
76. | Tafallan Eskualdeko Museo bat sortzea, udaleko edo/eta eskualdeko pinakoteka-egitasmo bat ere tartean.
77. | Arte-sorkuntza sustatzea, eskultura, pintura, argazkilaritza eta beste arteei buruzko erakusketak maiztasunez eginez.
78. | Zinemako film laburren jaialdi bat sortzea bultzatzea.
79. | Turismo-bulego bat sortzea.
80. | Azoketako gaiak zabaltzea (nekazaritzako makinak, teknologia, etab.).
81. | Tafallako udal musika-bandaren emanaldiak berreskuratzea.
82. | Jota-interpretaziorako zentro bat sustatzea.
83. | Hiltegi zaharrean sorkuntza-fabrika bat irekitzeko aukera aztertzea.

UDAL-ADMINISTRAZIOA

84. | Kirol-proben urteko egutegi bat ezartzea, bereziki gazteei eta zaharrei zuzendua.
85. | Zerbitzuak (adibidez, udal kiroldegia) berriz publiko bihurtzeko modu eraginkorra aztertzea.
86. | Udal-zerbitzu guztietan, zerbitzu-kartak ezartzea, herritarren parte-hartzea lehenetsiz, udal-administrazioa hobetzeko elementu nagusia delakoan.
87. | Kode etiko bat ezarri eta, hartara, edozein hautetsik edo udal langilek udal-kontratuen edo diru-laguntzen onuradunak diren erakunde, enpresa edo partikularrengandik jasotako edozein opari ez da onartuko edo, dagokionean, erakundearen zati bihurtuko da.
88. | Gehiengo parte-hartze publikoa duten enpresa eta fundazioetan, kontratazio publikoko eta enplegua eskuratzeko gaietan, konpromisoa hartu Administrazioan bezalako legezkoatasun-prozedurez arautzeko.
89. | Musika Eskolako udal-tasak berrikustea, musika-heziketa pertsona guztiek eskuratzeko modua izan dezaten.

**Tafallan
zeuk
erabakitzen
duzu historia**

**Ahal Dugu TAFALLA
PODEMOS.**

podemostafalla@gmail.com
www.facebook.com/Circulo-Podemos-Tafalla-811693672290117/